

**ERTZAINETXEETAN EUSKARA ZERBITZU HIZKUNTZA IZATEKO
OINARRIAK EZARRIKO DITUEN PLANA.
GERNIKAKO ERTZAINETXEAREN ADIBIDEA**

HIZKUNTZA PLANGINTZA IKASTAROA

2002ko uztaila

Aitor Azkuenaga

Juanjo Iragi

AURKIBIDEA

1. EGITASMOAREN KOKAPENA. LAN HIPOTESIA AURKEZTU

1.1 Sarrera.

1.2 Egitasmoaren helburuak eta oinarrizko hipotesiak.

1.3 Eragin eremua eta abiapuntua.

1.4 Metodologia.

1.4.1. Hipotesiaren baldintzak betetzen diren edo ez jakiteko erabili diren metodologiak.

1.4.2. Aukeratutako ertzainetxean egindako landa lana.

2. ERTZAINETXEEN EGOERA, HIPOTESIAREN ARABERA.

2.1 Ertzainetxeen egitura.

2.2. Herritarrekiko harremana duten lanpostuen identifikazioa eta funtzioak.

2.3. Hizkuntza gaitasuna eta mugikortasuna.

2.4. Hipotesia beteko duten ertzainetxe, lanpostu eta langileen identifikazioa.

3. GALDESORTA ETA EMAITZAK.

3.1. Galdesortaren edukiak eta nola egin diren.

3.2. Emaitzak.

3.3. Neurriak proposatu

4. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

4.1. Ondorioak.

4.2. Proposamenak.

4.3. Implementazioa eta ebaluazioa.

5. BIBLIOGRAFIA.

6. ERANSKINAK

6.1. A, B eta C motako ertzainetxeen egiturak.

6.2. Banatutako galdesorta.

1.- EGITASMOAREN KOKAPENA. LAN HIPOTESIA AURKEZTU

1.1.- Sarrera

Ertzaintzan euskararen normalkuntza prozesua arautzen duen 30/1998 Dekretuaren lehenengo azken xedapenak dio, Herrizaingo Sailak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Txostena egin ondoren, Ertzaintzako euskararen erabileraren Normalkuntza Plana onartuko duela. Esan beharra dago, Dekretuak urtebeteko epea eman zuela lan hori egiteko. Beraz, arrazoi ezberdinak direla medio, hainbeste atzeratu den lan hori, aurrera eraman behar da, eta horregatik, Herrizaingo Saila, erabilera plana egin aurretik, burutu behar den Bideragarritasun Txostena prestatzen ari da.

Hogei urte igaro direla Ertzaintza jaio zenetik, gaur egun dituen eskumenekin polizia osoa dela esan dezakegu. Era berean, joan den urtean, Ertzaintzarentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko azken lehiaketa egin zenetik, erakunde hau finkatu egin dela esan dezakegu¹. Horregatik, Ertzaintzako Euskararen Erabileraren Normalkuntza Planaren Bideragarritasun Txostena prestatzeko une egokia delakoan gaude. Hildo beretik jarraituz, datorren 2003ko urtarrilaren batean, 30/1998 Dekretuak arautzen duen Ertzaintzako euskararen normalkuntza prozesuaren lehen bosturteko etapa bukatuko da (Plangintza 10 urtekoa da, eta bost urteko etapa bitan banatzen da); eta aipatutako Dekretuaren 7. atalak dio, lehen etaparen amaieran ebaluazio bat egingo dela. Beraz, Erabilera Plana bera ebaluatzeko tresna egokia izateaz gain helburu berriak ezartzeko baliogarria izango dela uste dugu.

¹ EBAZPENA, 2001eko martxoaren 10ekoa, Ertzaintzan lanpostu aldaketarako deialdia egiten duena.

1.2.- Egitasmoaren helburuak eta oinarrizko hipotesiak

Ertzaintzaren lanpostu zerrendan², egon ez dago deskribatuta jendaurreko lanposturik; baina praktikan, Ertzainetxeetan jendeari harrera egiteko bulegoa dago. Bertan, jendearen salaketak, kekek eta galderak bideratzen dira.

Beraz, gure egitasmoaren helburua lanpostu horiek identifikatuz gain, euskara zerbitzu hizkuntza izatearen bideragarritasuna lanpostu horietan aztertzea litzateke.

Helburu honekin lotuta, ondoren gure oinarrizko hipotesia azalduko dugu: Gaur egun, Ertzainetxeetan jendaurreko zerbitzua ematen duten lanpostuak egon badaude, nahiz eta identifikazio sistematikorik ez egon. Herritarrekiko zerbitzu hau euskaraz zein gaztelaniaz ematea posible dela uste dugu ondorengo baldintzak bete ezker:

- Herritarrekiko harremanik ohikoenak (ahoz zein idatziz) argi zehaztuta egotea Ertzainetxean eta idatzizkoen kasuetan euskaraz eta gazteleraz eskuragarri egotea.
- Herritarrekiko harreman hauek dituzten lanpostuak ondo idendifikatzea eta derrigortasun-data zein egiaztatutako hizkuntza eskakizun kopurua nahikoa izatea.
- Lanpostu hauek txandetan antolatzen direnean, txanda bakoitzean euskaldunak egotea.
- Langile hauek herritarrekiko harremanetan erabiliko dituzten euskarazko materialetan trebatzea eta ahozkotasunean ere behar duten maila bermatzea. Euskarazko material espezifikoetan trebatzea

² AGINDUA, 2002ko maiatzaren 29koa, Ertzaintzako lanpostuen zerrenda aldatzen duena.

Baldintza hauek bete ezkeru posible izango da euskara herritarrekiko zerbitzu hizkuntza legez ere garatzea. Hipotesi hau testeatzeko euskaldunen dentsitate handiko ingurutik hasia proposatzen dugu, ondoren dentsitate gutxiagoko zentroetan aplikatzeko, aipatutako baldintzak bete ahala.

Ertzaintzan, jendaurreko lanpostuak edota funtzio hori duten lanpostuak detektatu eta zein egoera soziolinguistikotan dauden definitu ondoren, euskaldunen dentsitate handiko guneetako unitateetan, halako lanpostuetan euskara zerbitzu hizkuntza izatea bermatzea posible den aztertu nahi dugu.

1.3.- Eragin eremua eta abiapuntua

Esan dugun modura, lana euskaldunen dentsitate handiko guneetako ertzainetxeek dituzten jendaurreko lanpostuetan aplikatuko dugu.

Orain arte, Ertzaintzan aplikatu diren hizkuntza politika guztiak orokorrak izan dira; beraz, eremu mugatuak hartzea eta helburu zehatzak eta lorgarriak erabiltzea, planteamendu berria da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak onartu duen "Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak" aipatzen dituen iritziak kontuan hartu ditugu³.

Ertzainetxeetan, jendeari harrera emateko ertzain bat dagoela jakin badakigu, baina zein lanpostu den, lanpostu horrek zenbat dotazio dituen, nortzuk dauden dotazio horietan, zein den lanpostu horren txandaketa eta abar, aztertu beharko dugu. Era berean, jakin beharko dugu: zenbateraino erabiltzen den euskara lanpostu horretan, hiritarrek euskaraz galdetzen duten, ze funtzio betezen diren (hiritarrei harrera emateaz at),...

³ Eusko Jaurlaritzak, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen Zerbitzu Nagusia. 1999 Vitoria-Gasteiz

Beraz, Ertzaintzari buruzko datu orokorrak baditugu, baina lan honen helburu diren lanpostu zehatzen daturik ez daukagu.

Lan honetarako ertzainetxe bakar bat hartu dugu. Erabiliko dugun plangintzaren ondorioak ikusi eta gero beste ertzainetxeetan plan bera aplikatzen saiatuko ginateke. Baina, oraingoz, gure hipotesia baliatatzeko, Gernikako ertzainetxea hartu dugu. Aukeraketa hau egiteko, honako arrazoi nagusiak izan ditugu kontuan:

- Ertzainetxearen egoera soziolinguistikoa.
- Ertzainetxearen inguru euskaldun dentsitate handiko gunea izatea.
- Ertzainetxe honetan lan egiteko, a priori, zegoen egoera ona: motibazioaren aldetik, administrazioaren aldetik eta abar...
- Hipotesiaren baldintzak ondoen beteko ziren unitatea Gernika zela pentsatu genuen.

1.4.- Metodologia.

1.4.1.- Hipotesien baldintzak betetzen diren edo ez jakiteko erabili diren metodologiak.

Lehenengo, hipotesien baldintzen bideragarritasuna aztertu dugu. Horretarako erabili ditugun metodologia nagusiak bi izan dira:

- Datu baseen konparaketa eta esplotazioa

Ertzaintzaren Giza Baliabideetako zuzendaritzaren datu baseak (bai Lanarigo arlokoak eta bai Hizkuntza Normalkuntzako arlokoak) erabili izan ditugu. Horrela jakin izan dugu zenbat ertzain zegoen unitate eta lanpostu bakoitzean, zenbatek zuen gaudituta hizkuntza eskakizuna, zenbat diren euskaldun zaharrak, eta abar. Beste alde batetik, ertzainetxe bakoitzaren esparruko euskaldunen dentsitatea

jakiteko (indize linguistikoak ezarri ahal izateko) erroldak eta Eusko Jaurlaritzak egin dituen soziolinguistikazko inkestak erabili izan ditugu .

➤ Dekretuak, Aginduak eta txostenak aztertu

Ertzaintzaren egitura eta funtzioak jakiteko EHAAan agertutako dekretu, agindu eta erabakiak erabiliz gain, Ertzaintzaren Giza Baliabideen zuzendaritzako barne txostenak erabili ditugu.

1.4.2.- Aukeratutako ertzainetxean egindako landa lana.

Esan dugun modura, Gernikako ertzainetxea aukeratu izan dugu gure lana burutzeko. Bertako informazio zehatza lortzeko, landa lana egin behar izan dugu. Horretarako hiru bide erabili ditugu:

➤ Galdesorta: Galdesorta bat diseinatu eta bertako langileen artean banatu egin dugu. Horretarako Gernikako ertzainetxeko nagusi eta nagusiordearen bitartekaritza izan dugu. Galdesorta honen bitartez, gehien bat, ertzainen motibazioa, eta euskararen erabilera (hitz egiterakoan eta idazterakoan) ezagutu dugu.

➤ Euskarri informatikoak aztertu: Gernikako ertzainetxean erabiltzen den dokumentazio poliziala informatizatuta dago; beraz, zelako dokumentazioa erabiltzen den, euskaratuta dagoen, idazkien maiztasuna, hizkuntza eta era horretako galderen erantzuna bilatzeko, beraien programa informatikoa aztertu egin dugu.

- Elkarrizketa: Elkarrizketak izan ditugu bertako nagusi eta nagusiordearekin, eta beraien lankidetzari esker, unitate barruko antolaketaren berri zehatza izan dugu.

Galdesorta eta planaren helburua azaltzeko eta galdesorta nola bete adierazteko, talde buru eta bertako ertzain euskaldun zahar batzuekin bilerak izan ditugu.

2 .- ERTZAINETXEEN EGOERA, HIPOTESIAREN ARABERA

Aurreko atalean aurkeztutako hipotesia honakoa zen: bideragarria dela ertzainetxe bat aukeratzea eta bertan, jendeari harrera ematen dioten ertzainek, euskara zerbitzu hizkuntza bezala erabiltzea.

Nahiz eta gerora, gure plana beste ertzainetxeetan abian jartzeko gogoia izan, hasteko, Gernikako ertzainetxea aukeratu dugu.

Jarraian, zergatik eta nola egin dugun aukeraketa hori, azalduko dugu.

Horretarako, identifikazio prozedura honetan, lehenengo eta behin, ertzainetxeen egitura eta lanpostuen funtzioak aztertuko ditugu, gero lanpostuen mugikortasuna, ertzainetxearen hedapen esparruan dauden euskaldunen indizea eta (ertzain)langile euskaldunen kopurua. Horren guztiaren arabera erabakiko dugu zein ertzainetxetan aurrera eraman gure hipotesia. Azkenik, egitasmoaren barruan sartuko diren ertzainak identifikatuko ditugu, eta bai haien adina, lan egoera, zein euskara maila kontuan hartuko ditugu.

2.1 Ertzainetxeen egitura.

Lehenengo eta behin ertzainetxeen egitura aztertuko dugu, eta bertan, gure ustez interesgarriak diren lanpostuak non dauden kokatuta ikusiko dugu.


Ertzainetxeak, tamainaren arabera hiru motakoak izan daitezke eta bakoitzak honako egitura hau dauka:

- A motakoak: Ertzainetxe txikienak dira, 100-200 ertzain dituzte lanean.
- B motakoak: Ertzainetxe ertainak dira, 200-300 ertzain dituzte lanean.
- C motakoak: Hiriburuetako ertzainetxeak, 300 ertzain baino gehiago dituzte.

Gune euskaldunenetan dauden ertzainetxeak A motakoak dira: Zarautz, Tolosa, Azpeitia, Ondarroa eta Gernika.

Gure hipotesia, A motako ertzainetxe batean frogatuko dugu, Gernikako ertzainetxean. Bertan 200 ertzain daude, eta hiru bulego dituzte: Gernikako ertzainetxekoa bertakoa, Mungiakoa eta Bermeokoa.

A motako ertzainetxeak: (100/200 ertzain ingururu)⁴



⁴ Herritarren Segurtasunerako Sailburuordetza: Giza Baliabideen Zuzendaritza. “Análisis Organizacional para la configuración de las Unidades Territoriales de la Ertzaintza” 2000, Bilbao (Barne dokumentua).

2.2. Herritarrekiko harremana duten lanpostuen identifikazioa eta funtzioak

Ertzainetxearen barruan lau lanpostuk dute herritarrei harrera emateko betekizuna beraien funtzioen artean, nahiz denek ez izan harreman maila berdina. Ertzainetxeko leihatilan edo harrera lekuan hiritarren segurtasuneko agentea eta agente lehena egoten dira (txandaka) eta herritarren salaketak bideratzeko, ikerketako agentea zein agente lehena izaten dira jarduera horiek burutzen dituztenak.

Aurrekoa aipatu ondoren, lau lanpostu horiei dagozkien funtzioak eta betekizunak zerrendatuko ditugu:

LANPOSTUA: AGENTE LEHENA. ERTZAINETXEA

LANPOSTU HONETAKO EGINKIZUN NAGUSIAK:

- Unitateko eginkizunak betetzeko lanak egitea eta bere ardurapeko funtzionarioei aginduak ematea.
- Ordena publikoari eta herritarren segurtasunari eusteko eta behar denean horiek berrezartzeko lanak, trafikoa zaindu eta kontrolatzeko eta beste erakunde batzuk zaindu eta babesteko lanak kontrolatzea.
- Informazio orokorreko datu-basea elikatzea.
- Ezarrita dauden prozedurak betearaztea bertatik bertara.
- Segurtasun neurriei buruzko aholkuak ematea bertatik bertara.
- Bere lan-eremuko baliabideak zuzentzea.
- Bere arloko bulego publikoa kudeatzea.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak ikuskatzea jardunean daudenean.
- Bere lantaldearekin bilerak egitea, unean uneko ekintzetan azaltzen diren arazoei buruz.
- Honakoak egitea:

- aurretiazko txostenak.
 - bere zerbitzuaren eginkizun zehatzak.
 - lanaren ebaluazioak.
- Bere jarduera-eremuko baliabideak gainbegiratzea.
- **LANPOSTUA: AGENTEA. ERTZAINETXEA**
- LANPOSTU HONETAKO EGINKIZUN NAGUSIAK:
- Unitateko eginkizunak betetzeko lanak egitea.
- Ordena publikoari eta herritarren segurtasunari eusteko eta behar denean horiek berrezartzeko lanak, trafikoa zaindu eta kontrolatzeko eta beste erakunde batzuk zaindu eta babesteko lanak egitea.
- Laguntza ematea:
- arriskuan daudenei.
 - behartsuei.
 - bideetan matxura izandako gidariei.
 - delituen biktimei; hondamendietan; bideetan; istripuak gertatzen direnean.
- Bide-segurtasunari buruzko zabalkunde eta informazio kanpainetan laguntzea
- Agiriak egiaztatzea.
- Honakoak kontrolatzea:
- abereak.
 - agiriak.
 - bidaiarien garraioa.
 - bide-segurtasuna
 - garraio mistoa..
 - jendetzak
 - merkantzien garraioa.
 - Oinarriei buruzko Legearen arauak.
 - erreketak.

- Zirkulazioari buruzko Araudia.
- Patruiletan errondak egitea
- **Informazio publikoa ematea.**
- Bordak, eraikinak, merkataritza-guneak, industrialdeak eta jolas aldeak ikuskatzea.
- Esku hartzea:
 - delituren bat egiten denean.
 - herritarrek eskatzen dutenean.
- Epai-ofizioak ikertzea.
- Herritarren liskarretan bitarteko jardutea.
- Kontrol gabe dabilzan abereak harrapatzea.
- Aurrearretarako informazioa lortzea.
- Ondasunak, pertsonak eta arrastoak babestea.
- Honakoak egitea:
 - segurtasun-segizioa, laguntza-erakundeentzat.
 - segurtasun-segizioa, garraio berezientzat.
 - segurtasun-segizioa, agintarientzat.
 - segurtasun-segizioa, kirol saioetan.
- Pertsonak eta ibilgailuak arakatzea.
- Ondokoak zaintzea:
 - arrantza.
 - baserri aldeak.
 - basoak.
 - ehiza.
 - energi hornikuntza.
 - inor bizi ez den hirialdeak
 - komunikazio bideak
 - komunikazio sistemak
 - ondasunak.
 - pertsonak

- pistak eta bideak
- ur-eremuak.

LANPOSTUA: AGENTE LEHENA. ERTZAINETXEKO IKERKETA

LANPOSTU HONETAKO EGINKIZUN NAGUSIAK:

- Unitateko eginkizunak betetzeko lanak egitea eta bere ardurapeko funtzionarioei aginduak ematea.
- Krimen gaietarako poliziaren oinarrizko eginkizunak kontrolatzea bere lurralde-eremuan.
- Informazio orokorreko datu-baseak elikatzea.
- Ezarrita dauden prozedurak betearaztea.
- Bere jarduera-eremuko baliabideak zuzentzea.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak ikuskatzea jardunean daudenean.
- Bere lantaldearekin bilerak egitea arazoak aztertzeko.
- Honakoak egitea:
 - **aurrearretazko txostenak.**
 - bere zerbitzuaren eginkizun zehatzak.
 - ikerketei buruzko txostenak.
 - lanaren ebaluazioak.
- Bere jarduera-eremuko baliabideak gainbegiratzea.

LANPOSTUA: AGENTEA. ERTZAINETXEKO IKERKETA.

LANPOSTU HONETAKO EGINKIZUN NAGUSIAK:

- Unitateko eginkizunak betetzeko lanak egitea.
- Krimen gaietarako poliziaren oinarrizko eginkizunak betetzea bere lurralde-eremuan.
- Berreskuratutako ondasunen gordailua zaintzea.
- Honako kasuetan ikertzea:

- .Garraio arloko, trafiko arloko, etxeko, kaleko zein laneko istripuak.
- .Legedi bereziak delitutzat dituen ekintzak.
- .Zigor Kodeak delitu edo faltatzat dituen ekintzak
 - .Administrazio arloko lege-hausteak.
 - .Epaitegietako ofizioak.
- Informazio erreaktiboa lortzea.
- Honakoak egitea:
 - .Bideei buruzko txosten teknikoak
 - .Txostenak eta diligentziak
 - .Begi-ikuskapenak bere lurralde-eremuan
 - .Ikerketak Unitate Zentralarekin batera
 - .Identifikazio eta dokumentazio Unitatearen ardurapean polizia zientifikoak eskatuta laguntza-lanak
 - .Delituak ekiditzeko, herritarrei laguntza eta babesa eskaintzeko eta bide-segurtasuneko lanak; halaber, egoerak eskatzen duenean herritarrekin harremanak izateko eginkizunak
 - .Informazio Unitateak eskatuta aurrehartze eta informazio lanak
- **Herritarren salaketak jasotzea.**⁵

⁵ Herritarren Segurtasunerako Sailburuordetza: Giza Baliabideen Zuzendaritza. “Análisis Organizacional para la configuración de las Unidades Territoriales de la Ertzaintza” 2000, Bilbao (Barne dokumentua).

2.3. Hizkuntza gaitasuna eta mugikortasuna.

Ondoren, gure hipotesia zein ertzainetxetan izango den bideragarriago erabakiko dugu. Horretarako, hiru baldintza aztertuko ditugu:

- Indizea: Ertzainetxearen lan esparruko herrietako euskaldunen portzentaia oinarritzko baldintza dugu. Euskaldunen indize handiko tokietan euskaren erabilera handiagoa da eta euskara zerbitzu hizkuntza bihurtzeko premia areagotu egingo da.
- Mugikortasuna: Gure hipotesiaren erabilgarritasuna frogatzeko, langileen mugikortasuna kontuan hartu behar dugu. Oraindik ertzainetxe batzuetan mugikortasun handia baitago (batez ere Gipuzkoako unitateetan). Zenbat eta jabetun lanpostudun (J.L) gehiago egon bertan lanean, orduan eta mugikortasun gutxiago egongo da ertzainetxe horretan. Mugikortasuna kontuan hartu behar da, Euskara zerbitzu hizkuntza izatea nahi badugu ertzainetxeko harrera tokietan; lan hori betetzen duten langileek mugikortasunik ez izatea konbeni zaigu, bestela egingo dugun ikerketak, prestakuntza planak eta abar, alferrikakoak izango dira.
- Ertzain euskaldunen kopurua: Adierazgarri bi erabiliko ditugu ertzainetxeko langile euskaldunen kopurua neurtzeko: Zenbatek gainditu duten Ertzaintzaren lehen hizkuntza eskakizuna eta zenbat derrigortasun data dauden.

Aipatu ditugun baldintzak aztertu eta gero, Gernikako Ertzainetxea da gure hipotesia aurrera eramateko lantokirik bideragarriena.

Ondorengo laukian, ertzainetxeak sailkatu egin dira hipotesiaren bideragarritasun-baldintzen arabera⁶:

⁶ Herritarren Segurtasunerako Sailburuordetza: Giza Baliabideen Zuzendaritza, Ertzaintzaren Lanarigo Arloko, Hizkuntzaren normalkuntza Arloko datu baseak eta EHPIko Hizkuntza Eskakizunen Erregistroa.

LANPOSTUA: AGENTEA LEHENA.ERTZAINETXEA

KOD	UNITATEA	INDIZEA	Dot.Kop. Ag. L. H.S.	J.L.	% J.L.	1HE	% 1HE	J.L. Ez	% J.L. Ez	1HE	% 1HE	Data kop.	% Datak
233	AZKOITIKO ERTZAINETXEA	89,06	11	1	9,09%	1	9,09%	9	81,82%	6	54,55%	5	45,45%
230	ONDARROAKO ERTZAINETXEA	89,04	11	1	9,09%	1	9,09%	10	90,91%	4	36,36%	3	27,27%
242	ZARAUTZKO ERTZAINETXEA	82,42	11	0	0,00%	0	0,00%	6	54,55%	3	27,27%	1	9,09%
227	GERNIKA-LUMOKO ERTZAINETXEA	79,21	16	9	56,25%	2	12,50%	8	50,00%	4	25,00%	3	18,75%
241	TOLOSAKO ERTZAINETXEA	79,17	11	2	18,18%	2	18,18%	0	0,00%	0	0,00%	2	18,18%
235	BERGARAKO ERTZAINETXEA	70,69	16	3	18,75%	3	18,75%	13	81,25%	3	18,75%	7	43,75%
234	BEASAINGO ERTZAINETXEA	70,48	11	1	9,09%	1	9,09%	10	90,91%	2	18,18%	3	27,27%
224	DURANGOKO ERTZAINETXEA	62,98	21	11	52,38%	6	28,57%	9	42,86%	4	19,05%	6	28,57%
238	HERNANIKO ERTZAINETXEA	59,93	16	1	6,25%	0	0,00%	11	68,75%	4	25,00%	2	12,50%
243	ZUMARRAGAKO ERTZAINETXEA	57,32	11	0	0,00%	0	0,00%	9	81,82%	1	9,09%	3	27,27%
237	EIBARKO ERTZAINETXEA	52,5	16	3	18,75%	3	18,75%	13	81,25%	2	12,50%	6	37,50%
240	ERRENTERRIAKO ERTZAINETXEA	51,2	16	0	0,00%	0	0,00%	16	100,00%	4	25,00%	2	12,50%
236	DONOSTIAKO ERTZAINETXEA	45,56	50	0	0,00%	0	0,00%	42	84,00%	13	26,00%	2	4,00%
239	IRUNGO ERTZAINETXEA	44,36	16	7	43,75%	4	25,00%	4	25,00%	0	0,00%	8	50,00%
219	LAUDIOKO ERTZAINETXEA	43,94	11	6	54,55%	2	18,18%	5	45,45%	1	9,09%	4	36,36%
226	GALDAKAOKO ERTZAINETXEA	43,81	12	7	58,33%	4	33,33%	4	33,33%	0	0,00%	4	33,33%
228	GETXOKO ERTZAINETXEA	36,28	21	10	47,62%	2	9,52%	6	28,57%	2	9,52%	4	19,05%
225	ERANDIOKO ERTZAINETXEA	33,38	16	7	43,75%	1	6,25%	4	25,00%	0	0,00%	3	18,75%
223	BILBOKO ERTZAINETXEA	26,04	69	40	57,97%	14	20,29%	20	28,99%	2	2,90%	13	18,84%
222	BASAURIKO ERTZAINETXEA	25,34	21	11	52,38%	2	9,52%	5	23,81%	1	4,76%	4	19,05%
220	GASTEIZKO ERTZAINETXEA	23,76	72	34	47,22%	7	9,72%	39	54,17%	4	5,56%	10	13,89%

229	MUSKIZKO ERTZAINETXEA	21,68	21	14	66,67%	2	9,52%	7	33,33%	1	4,76%	2	9,52%
231	SESTAOKO ERTZAINETXEA	19,42	26	15	57,69%	5	19,23%	8	30,77%	0	0,00%	6	23,08%
221	BALMASEDAKO ERTZAINETXEA	18,51	11	5	45,45%	0	0,00%	1	9,09%	0	0,00%	0	0,00%
218	BIASTERIKO ERTZAINETXEA	13,57	11	6	54,55%	1	9,09%	5	45,45%	0	0,00%	2	18,18%

LANPOSTUA: AGENTEA. ERTZAINETXEA

KOD	UNITATEA	INDIZE A	Dot.Kop. Ag. H.S.	J.L.	% J.L.	1HE	% 1HE	J.L. Ez	% J.L. Ez	1HE	% 1HE	Data kop.	% Datak
233	AZKOITIKO ERTZAINETXEA	89,06	52	31	59,62%	19	36,54%	11	21,15%	2	3,85%	19	36,54%
230	ONDARROAKO ERTZAINETXEA	89,04	57	31	54,39%	18	31,58%	19	33,33%	5	8,77%	25	43,86%
242	ZARAUTZKO ERTZAINETXEA	82,42	52	15	28,85%	10	19,23%	32	61,54%	7	13,46%	21	40,38%
227	GERNIKA-LUMOKO ERTZAINETXEA	79,21	100	83	83,00%	35	35,00%	2	2,00%	1	1,00%	38	38,00%
241	TOLOSAKO ERTZAINETXEA	79,17	52	29	55,77%	13	25,00%	19	36,54%	5	9,62%	20	38,46%
235	BERGARAKO ERTZAINETXEA	70,69	95	32	33,68%	11	11,58%	43	45,26%	14	14,74%	33	34,74%
234	BEASAINGO ERTZAINETXEA	70,48	52	13	25,00%	11	21,15%	30	57,69%	6	11,54%	18	34,62%
224	DURANGOKO ERTZAINETXEA	62,98	120	97	80,83%	36	30,00%	6	5,00%	0	0,00%	41	34,17%
238	HERNANIKO ERTZAINETXEA	59,93	110	37	33,64%	18	16,36%	73	66,36%	16	14,55%	35	31,82%
243	ZUMARRAGAKO ERTZAINETXEA	57,32	47	16	34,04%	10	21,28%	31	65,96%	8	17,02%	18	38,30%
237	EIBARKO ERTZAINETXEA	52,5	87	59	67,82%	23	26,44%	5	5,75%	1	1,15%	28	32,18%
240	ERRENTERRIAKO ERTZAINETXEA	51,2	105	46	43,81%	23	21,90%	38	36,19%	9	8,57%	35	33,33%
236	DONOSTIAKO ERTZAINETXEA	45,56	293	62	21,16%	29	9,90%	207	70,65%	29	9,90%	78	26,62%
239	IRUNGO ERTZAINETXEA	44,36	86	47	54,65%	16	18,60%	19	22,09%	6	6,98%	19	22,09%
219	LAUDIOKO ERTZAINETXEA	43,94	52	37	71,15%	9	17,31%	4	7,69%	2	3,85%	12	23,08%
226	GALDAKAOKO ERTZAINETXEA	43,81	51	39	76,47%	7	13,73%	1	1,96%	0	0,00%	9	17,65%
228	GETXOKO ERTZAINETXEA	36,28	121	97	80,17%	17	14,05%	6	4,96%	0	0,00%	21	17,36%

225	ERANDIOKO ERTZAINETXEA	33,38	91	72	79,12%	7	7,69%	10	10,99%	0	0,00%	8	8,79%
223	BILBOKO ERTZAINETXEA	26,04	403	300	74,44%	29	7,20%	39	9,68%	0	0,00%	36	8,93%
222	BASAURIKO ERTZAINETXEA	25,34	114	98	85,96%	9	7,89%	3	2,63%	0	0,00%	11	9,65%
220	GASTEIZKO ERTZAINETXEA	23,76	423	277	65,48%	37	8,75%	108	25,53%	28	6,62%	49	11,58%
229	MUSKIZKO ERTZAINETXEA	21,68	125	89	71,20%	6	4,80%	10	8,00%	0	0,00%	11	8,80%
231	SESTAOKO ERTZAINETXEA	19,42	135	106	78,52%	12	8,89%	9	6,67%	1	0,74%	13	9,63%
221	BALMASEDAKO ERTZAINETXEA	18,51	57	47	82,46%	3	5,26%	4	7,02%	0	0,00%	4	7,02%
218	BIASTERIKO ERTZAINETXEA	13,57	57	43	75,44%	3	5,26%	5	8,77%	0	0,00%	6	10,53%

LANPOSTUA: AGENTEA. ERTZAINETXEKO IKERKETA

KOD	UNITATEA	INDIZE A	Dot. Kop. Ag. IKOI	J.L.	% J.L.	1HE	% 1HE	J.L. Ez	% J.L. Ez	1HE	% 1HE	Data kop.	% Datak
233	AZKOITIKO ERTZAINETXEA	89,06	15	6	40,00%	4	26,67%	4	26,67%	2	13,33%	7	46,67%
230	ONDARROAKO ERTZAINETXEA	89,04	14	4	28,57%	0	0,00%	5	35,71%	1	7,14%	5	35,71%
242	ZARAUTZKO ERTZAINETXEA	82,42	15	3	20,00%	0	0,00%	2	13,33%	1	6,67%	6	40,00%
227	GERNIKA-LUMOKO ERTZAINETXEA	79,21	30	18	60,00%	11	36,67%	7	23,33%	0	0,00%	10	33,33%
241	TOLOSAKO ERTZAINETXEA	79,17	15	5	33,33%	3	20,00%	5	33,33%	1	6,67%	8	53,33%
235	BERGARAKO ERTZAINETXEA	70,69	25	16	64,00%	5	20,00%	6	24,00%	1	4,00%	5	20,00%
234	BEASAINGO ERTZAINETXEA	70,48	12	6	50,00%	4	33,33%	1	8,33%	1	8,33%	5	41,67%
224	DURANGOKO ERTZAINETXEA	62,98	25	21	84,00%	10	40,00%	4	16,00%	2	8,00%	12	48,00%
238	HERNANIKO ERTZAINETXEA	59,93	25	4	16,00%	3	12,00%	21	84,00%	6	24,00%	7	28,00%
243	ZUMARRAGAKO ERTZAINETXEA	57,32	7	5	71,43%	5	71,43%	2	28,57%	0	0,00%	5	71,43%
237	EIBARKO ERTZAINETXEA	52,5	25	15	60,00%	4	16,00%	3	12,00%	0	0,00%	6	24,00%
240	ERRENTERRIAKO ERTZAINETXEA	51,2	25	9	36,00%	3	12,00%	16	64,00%	2	8,00%	7	28,00%
236	DONOSTIAKO ERTZAINETXEA	45,56	70	30	42,86%	8	11,43%	8	11,43%	1	1,43%	12	17,14%

239	IRUNGO ERTZAINETXEA	44,36	25	20	80,00%	4	16,00%	4	16,00%	0	0,00%	4	16,00%
219	LAUDIOKO ERTZAINETXEA	43,94	15	10	66,67%	4	26,67%	3	20,00%	1	6,67%	3	20,00%
226	GALDAKOKO ERTZAINETXEA	43,81	15	10	66,67%	6	40,00%	6	40,00%	1	6,67%	6	40,00%
228	GETXOKO ERTZAINETXEA	36,28	29	22	75,86%	3	10,34%	11	37,93%	2	6,90%	5	17,24%
225	ERANDIOKO ERTZAINETXEA	33,38	24	15	62,50%	0	0,00%	11	45,83%	2	8,33%	3	12,50%
223	BILBOKO ERTZAINETXEA	26,04	125	94	75,20%	24	19,20%	33	26,40%	1	0,80%	29	23,20%
222	BASAURIKO ERTZAINETXEA	25,34	20	18	90,00%	4	20,00%	4	20,00%	0	0,00%	4	20,00%
220	GASTEIZKO ERTZAINETXEA	23,76	69	41	59,42%	6	8,70%	14	20,29%	1	1,45%	6	8,70%
229	MUSKIZKO ERTZAINETXEA	21,68	30	20	66,67%	9	30,00%	10	33,33%	1	3,33%	8	26,67%
231	SESTAOKO ERTZAINETXEA	19,42	33	28	84,85%	4	12,12%	6	18,18%	0	0,00%	6	18,18%
221	BALMASEDAKO ERTZAINETXEA	18,51	10	3	30,00%	1	10,00%	8	80,00%	0	0,00%	3	30,00%
218	BIASTERIKO ERTZAINETXEA	13,57	10	5	50,00%	2	20,00%	4	40,00%	0	0,00%	3	30,00%

LANPOSTUA: AGENTE LEHENA. ERTZAINETXEKO IKERKETA

KOD	UNITATEA	INDIZEA	Dot. Kop. Ag. L.IKOI	J.L.	% J.L.	1HE	% 1HE	J.L. Ez	% J.L. Ez	1HE	% 1HE	Data kop.	% Datak
233	AZKOITIKO ERTZAINETXEA	89,06	5	0	0,00%	0	0,00%	5	100,00%	4	80,00%	2	40,00%
230	ONDARROAKO ERTZAINETXEA	89,04	6	0	0,00%	0	0,00%	6	100,00%	5	83,33%	1	16,67%
242	ZARAUTZKO ERTZAINETXEA	82,42	5	0	0,00%	0	0,00%	4	80,00%	2	40,00%	3	60,00%
227	GERNIKA-LUMOKO ERTZAINETXEA	79,21	5	0	0,00%	0	0,00%	5	100,00%	3	60,00%	2	40,00%
241	TOLOSAKO ERTZAINETXEA	79,17	5	0	0,00%	0	0,00%	6	120,00%	4	80,00%	1	20,00%
235	BERGARAKO ERTZAINETXEA	70,69	10	1	10,00%	1	10,00%	6	60,00%	6	60,00%	6	60,00%
234	BEASAINGO ERTZAINETXEA	70,48	8	0	0,00%	0	0,00%	7	87,50%	4	50,00%	5	62,50%
224	DURANGOKO ERTZAINETXEA	62,98	5	3	60,00%	1	20,00%	3	60,00%	1	20,00%	1	20,00%
238	HERNANIKO ERTZAINETXEA	59,93	5	0	0,00%	0	0,00%	5	100,00%	4	80,00%	4	80,00%

243	ZUMARRAGAKO ERTZAINETXEA	57,32	8	0	0,00%	0	0,00%	6	75,00%	6	75,00%	3	37,50%
237	EIBARKO ERTZAINETXEA	52,5	5	2	40,00%	2	40,00%	3	60,00%	2	40,00%	3	60,00%
240	ERRENTERRIAKO ERTZAINETXEA	51,2	5	3	60,00%	3	60,00%	3	60,00%	1	20,00%	4	80,00%
236	DONOSTIAKO ERTZAINETXEA	45,56	15	7	46,67%	5	33,33%	6	40,00%	2	13,33%	8	53,33%
239	IRUNGO ERTZAINETXEA	44,36	6	3	50,00%	1	16,67%	2	33,33%	1	16,67%	2	33,33%
219	LAUDIOKO ERTZAINETXEA	43,94	6	0	0,00%	0	0,00%	4	66,67%	1	16,67%	2	33,33%
226	GALDAKAOKO ERTZAINETXEA	43,81	5	2	40,00%	1	20,00%	4	80,00%	1	20,00%	2	40,00%
228	GETXOKO ERTZAINETXEA	36,28	6	4	66,67%	1	16,67%	3	50,00%	0	0,00%	1	16,67%
225	ERANDIOKO ERTZAINETXEA	33,38	6	2	33,33%	0	0,00%	4	66,67%	1	16,67%	2	33,33%
223	BILBOKO ERTZAINETXEA	26,04	25	12	48,00%	3	12,00%	10	40,00%	3	12,00%	7	28,00%
222	BASAURIKO ERTZAINETXEA	25,34	5	0	0,00%	0	0,00%	4	80,00%	2	40,00%	3	60,00%
220	GASTEIZKO ERTZAINETXEA	23,76	15	3	20,00%	1	6,67%	6	40,00%	1	6,67%	5	33,33%
229	MUSKIZKO ERTZAINETXEA	21,68	5	2	40,00%	0	0,00%	4	80,00%	0	0,00%	0	0,00%
231	SESTAOKO ERTZAINETXEA	19,42	6	2	33,33%	0	0,00%	3	50,00%	0	0,00%	0	0,00%
221	BALMASEDAKO ERTZAINETXEA	18,51	5	0	0,00%	0	0,00%	5	100,00%	1	20,00%	2	40,00%
218	BIASTERIKO ERTZAINETXEA	13,57	5	1	20,00%	0	0,00%	4	80,00%	1	20,00%	2	40,00%

2.4. Hipotesia beteko duten ertzainetxe, lanpostu eta langileen identifikazioa.

Orain arte ikusi dugu herritar segurtasuneko agentea, agente lehena, ikerketa agentea eta agente lehena izeneko lanpostuen eginkizun nagusien artean dagoela: ertzainetxeko bulego publikoan lan egitea eta heritarrekin harremanetan egotea, informazioa emanez edota aurrearretazko txostenak eginez.

Gernikako ertzainetxean gure hipotesia aurrera eramateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla frogatu dugu, emandako tauletan ageri diren datuak aztertuz. Beraz, Gernikako ertzainetxeko herritar segurtasuneko agente eta agente lehen lanpostuetan eta ikerketa agente eta agente leheneko lanpostuetan euskara zerbitzu hizkuntza bihurtzea bideragarria dela uste dugu.

Ondoren, lanpostu hauetan lanean ari diren ertzainak identifikatu egin ditugu. Jarraian, bada, ertzainen adina, euskara maila (hizkuntza eskakizuna gainditu duten ala ez) eta jabetun lanpostuan ari diren ala ez zehaztuko dugu. Datu hauen iturria, Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Arloko Datu-basekoa da⁷.

⁷ Herritarren Segurtasunerako Sailburuordetza: Giza Baliabideen Zuzendaritza, Ertzaintzaren Lanarigo Arloko, Hizkuntzaren normalkuntza Arloko datu-baseak eta EHPIko Hizkuntza Eskakizunen Erregistroa.

Lanpostua: 22705 Agente Lehena H.S.

Dotazio kopurua:16

Hutsik: 0 (Bat geihago ari da lanean)

Derrigortasun daten kopurua: 3 (%18)

KOD.	ADINA	1HE	MAILA	
1	51		E-0	J.L.
2	43		E-0	J.L. EZ
3	47		ALF-1	J.L.
4	42	GAI	ALF-2	J.L. EZ
5	46		E-2	J.L. EZ
6	37		E-1	J.L. EZ
7	41		E-1	J.L.
8	41		E-6	J.L. EZ
9	39		E-6	J.L.
10	41	GAI	E-8	J.L.
11	38		E-6	J.L.
12	38	GAI	ALF-2	J.L. EZ
13	40		E-6	J.L.
14	36	GAI	ALF-2	J.L. EZ
15	41	GAI	ALF-2	J.L. EZ
16	39	GAI	ALF-2	J.L.
17	32		E-9	J.L.

Lanpostua: 22706 Agente H.S.

Dotazio kopurua:100

Hutsik: 15

Derrigortasun daten kopurua: 38 (%44)

KOD.	ADINA	1HE	AZKEN MAILA	
1	43	GAI	ALF-2	J.L.
2	43		ALF-1	J.L.
3	42		E-0	J.L.

KOD.	ADINA	IHE	AZKEN MAILA	
4	48		ALF-2	J.L.
5	46		E-0	J.L.
6	44		ALF-2	J.L.
7	42	GAI	ALF-2	J.L.
8	45		E-2	J.L.
9	47		E-6	J.L.
10	44	GAI	E-8	J.L.
11	44		E-2	J.L.
12	42		ALF-2	J.L.
13	44		ALF-1	J.L.
14	50		E-2	J.L.
15	43		ALF-1	J.L.
16	40	GAI	ALF-2	J.L.
17	41	GAI	ALF-2	J.L.
18	43	GAI	E-8	J.L.
19	46		E-1	J.L.
20	46		E-1	J.L.
21	40	GAI	ALF-2	J.L.
22	41		E-2	J.L.
23	39		E-2	J.L.
24	42		ALF-2	J.L.
25	39	GAI	ALF-2	J.L.
26	45		ALF-1	J.L.
27	46		ALF-2	J.L.
28	38	GAI	ALF-2	J.L.
29	41		E-6	J.L.
30	42		E-0	J.L.
31	43		E-1	J.L.
32	38		E-2	J.L.
33	45		E-1	J.L.
34	45		ALF-2	J.L.
35	42		ALF-1	J.L.
36	41	GAI	ALF-2	J.L.
37	41	GAI	ALF-2	J.L.
38	42	GAI	ALF-2	J.L.
39	43		ALF-2	J.L.
40	41		ALF-1	J.L.
41	42	GAI	ALF-2	J.L.
42	40	GAI	ALF-2	J.L.
43	39	GAI	ALF-2	J.L.
44	37		E-1	J.L.
45	40	GAI	ALF-2	J.L.

KOD.	ADINA	IHE	AZKEN MAILA	
46	44		ALF-1	J.L.
47	43	GAI	ALF-2	J.L.
48	41	GAI	E-8	J.L.
49	40	GAI	ALF-2	J.L.
50	46	GAI	E-8	J.L.
51	43		ALF-1	J.L.
52	40	GAI	ALF-2	J.L.
53	42	GAI	E-8	J.L.
54	46		E-2	J.L.
55	38		E-4	J.L.
56	41		E-2	J.L.
57	39		E-2	J.L.
58	44		E-7	J.L.
59	37	GAI	ALF-2	J.L.
60	42		ALF-1	J.L.
61	43		ALF-1	J.L.
62	38	GAI	ALF-2	J.L.
63	37		ALF-1	J.L.
64	39		ALF-1	J.L.
65	36		E-2	J.L.
66	40		E-2	J.L.
67	38		E-6	J.L.
68	37	GAI	ALF-2	J.L.
69	41	GAI	E-8	J.L.
70	39		E-3	J.L.
71	39	GAI	ALF-2	J.L.
72	39	GAI	ALF-2	J.L.
73	41	GAI	ALF-2	J.L.
74	37	GAI	ALF-2	J.L.
75	35		ALF-1	J.L.
76	39		E-2	J.L.
77	36		E-2	J.L.
78	44		E-2	J.L.
79	35	GAI	E-8	J.L.
80	35	GAI	E-8	J.L.
81	41		ALF-1	J.L. EZ
82	39	GAI	ALF-2	J.L.
83	40	GAI	ALF-2	J.L.
84	37	GAI	ALF-2	J.L.
85	32	GAI	ALF-2	J.L. EZ

Lanpostua: 22709 Agente IKOI

Dotazio kopurua: 30

Hutsik:5

Derrigortasun daten kopurua: 10 (%40)

KOD.	ADINA	1HE	AZKEN MAILA	
1	42		ALF-1	J.L. EZ
2	40		E-2	J.L. EZ
3	43	GAI	ALF-2	J.L.
4	42	GAI	ALF-2	J.L.
5	39		E-6	J.L. EZ
6	41		E-6	J.L.
7	38		E-2	J.L. EZ
8	42		E-2	J.L. EZ
9	36		E-2	J.L. EZ
10	34		E-2	J.L.
11	34		E-2	J.L.
12	36	GAI	E-8	J.L.
13	37	GAI	ALF-2	J.L.
14	32		E-3	J.L.
15	35		E-4	J.L.
16	32	GAI	ALF-2	J.L.
17	32		E-4	J.L. EZ
18	34		E-6	J.L.
19	35		E-4	J.L.
20	31	GAI	E-8	J.L.
21	33	GAI	ALF-2	J.L.
22	35	GAI	E-8	J.L.
23	35	GAI	ALF-2	J.L.
24	32	GAI	E-8	J.L.
25	33	GAI	EGA	J.L.

Lanpostua: 22708 Agente Lehena IKOI

Dotazio kopurua: 5

Hutsik: 0

Derrigortasun daten kopurua: 2 (%40)

KOD.	ADINA	1HE	AZKEN MAILA	
1	43	GAI	ALF-2	J.L. EZ
2	43	GAI	ALF-2	J.L. EZ
3	42	GAI	ALF-2	J.L. EZ
4	40		ALF-2	J.L. EZ
5	31		E-4	J.L. EZ

OHARRAK:

Aurreko datuak ikusita aipatu beharreko zenbait puntu daudela uste dugu:

➤ **H.S. Agente lehen lanpostua.**

- Lanpostu honetan dago derigortasun daten ehuneko txikiena. Horren arrazoia da , derigortasun datok jabetun lanpostudun dotazioetan jartzen direla eta lanpostu honetan aurkitu dugu jabetun lanpostugabeko kopuru altuena.

➤ **H.S. Agentea lanpostua.**

- Herritarren segurtasunerako agente lanpostuan ertzaintzaren Lehen Hizkuntza eskakizuna atera gabe dutenen artean 21 ertzain euskaldun (zahar) daude.
- Ertzaintzaren 1.H.E. aterata dutenen batz bestekoa %35 dela ageri da tauletan, lanpostu kopurua 100 delako eta 1 h.e. dutenak 35. Baina, oraintxe bertan beteta dauden 85 lanpostuak kontuan

hatuta, euskaraz dakitenen batuz bestekoa %41,2 izango litzateke: 85etik 35ek dute 1.h.e.

- Horrez gain, aipatutako beste 21 ertzain horiek gehituz gero, 85etik 56 euskaldun izango genituzke. Datu horrek benetako batuz bestekoa %66 dela adieraziko luke.

➤ **IKOI Agentea lanpostua**

- Kasu honetan ere ertzaintzaren 1.h.e. dutenen indizeak ez dira oso errealak; 30 lanpostu dauden arren, 25 dira beteta daudenak. Horietarik 11 dira 1.h.e. dutenak. Beraz, taulan ageri den %36,6a, lanpostu horretako 30 ertzainak kontuan hartuta dago aterata. Baina lanean dihardutenak, 25, aintzat hartuz gero, %44 izango litzateke indizea. Horrez gain beste ertzain bat euskaldun zaharra da, baina ez du 1 h.e. atera.
- Ondorioz, lanpostu honetan dihardutenen ia erdia euskalduna dela esan dezakegu.

➤ **IKOI Agente Lehena lanpostua.**

Kasu honetan bi datu aipagarri ditugu:

- -Lehenengo eta behin lanpostuaren jabetzari dagokiona. Taulan "EZ jabedun" gisa ageri badira ere, ez da erabat egia. Agente Lehen moduan "EZ J.L." diren arren Agente gisa "J.L." dira, denek Gernikako Ertzainetxean dutelako euren lanpostu finkoa.

- Horrek esan nahi duena da, oraingo lanpostuaren jabe ez diren arren, mugikortasunari begira, bertakoak direla.
- Euskarari dagokionez, aipatu behar duguna zera da: 1.h.e. aterata duten ertzainez gain beste euskaldun (zahar) bat dagoela. Ondorioz, 5 lanpostu horiek betetzen ari diren ertzainetatik lauk euskaraz dakitela. Eta indizea, beraz, ez litzateke %60 izango,%80 baizik.

Lan txandaketa

Lanpostu hauetan txandaka egiten dute lan, hain zuzen, Gernikako ertzainetxearen 2002ko lan-txandaketa taula hau da⁸:

2002 urtea	1. TALDEA		2 TALDEA		3 TALDEA		4 TALDEA		5 TALDEA	
6-urta	X-X	54	X-L	32	L-L	0	X-X	54	L-L	0
13	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62
20	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0
27	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40
3-otsa	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62
10	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0
17	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62
24	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0
3-mar	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40
10	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62
17	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0
24	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62
31	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0
7-apir	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40
14	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62
21	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0
28	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62
5-mai	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0
12	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40
19	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62
26	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0
2-eka	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62

⁸ Herritarren Segurtasunerako Sailburuordetza: Giza Baliabideen Zuzendaritza, Ertzaintzaren Lanarigo Arloko eta Hizkuntzaren normalkuntza Arloko datu-baseak.

2002 urtea	1. TALDEA		2 TALDEA		3 TALDEA		4 TALDEA		5 TALDEA	
	9	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L
16	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40
23	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62
30	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0
7- uzt	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62
14	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0
21	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40
28	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62
4-abu	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0
11	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62
18	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0
25	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40
1-ira	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62
8	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0
15	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62
22	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0
29	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40
6-urri	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62
13	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0
20	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62
27	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0
3-aza	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40
10	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62
17	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0
24	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62
1-abe	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0
8	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62	X-L	40
15	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0	X-X	62
22	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62	L-L	0
29	L-L	0	X-X	62	X-L	40	L-L	0	X-X	62
31-abe	X-X	16	L-L	0	X-X	16	X-L	16	L-L	0
ORDUAK urtean		1.710		1.734		1.696		1.710		1.702
ORDUAK oporrak		172		172		172		172		172
ORDU errealak		1.538		1.562		1.524		1.538		1.530

OHARRA: L= egun librea

X= lan eguna.

Beraz, lau lanpostu hauetako ertzainak bost lantaldetan banatzen dira. Horrek esan nahi du, ertzainetxeko bulego publikoan euskara zerbitzu hizkuntza izatea bermatu nahi badugu, lanpostu bakoitzeko txandetan euskaldunak egotea zihurtatu beharko dugula.

Lantalde bakoitzean 23 ertzain inguru aritrzen dira. Gehienak H.S.ekoak dira eta %20, gutxi gora bera, IKOIkoak izaten dira normalean.

Bukatzeko, aztertutako lanpostuetako ertzainak txandetan nola banatzen diren ikusiko dugu ⁹:

LAN TXANDA	ZENBAT	HE1	ALF	E%
1	24	12	2	58,3%
2	23	12	3	69,5%
3	23	10	6	69,5%
4	21	8	4	57,1%
5	22	7	5	54,5%

ZENBAT: Lan txanda bakoitzean lanean ari diren ertzainen kopurua.

HE1: 1 hizkuntza eskakizuna gainditu dutenak

ALF: 1 hizkuntza eskakizuna gainditu gabe eta euskaldun zaharrak.

E%: Euskaldunen %

Aurreko datuek adierazten dutenez, lan talde bakoitzean erdia, behintzat, euskaraz hitz egiteko gai da. Beraz, teorian bederen, ahozko harremanak euskaraz izatea bermatuta legoke.

Dena den, aurrerago ikusiko dugun bezala, uste dugu, prestakuntzaren aldetik ahalegin bi egin beharko direla:

1. HE gainditu gabe duten euskaldun zarrek HE gaindi dezatela.

⁹ Herritarren Segurtasunerako Sailburuordetza: Giza Baliabideen Zuzendaritza, Ertzaintzaren Lanarigo Arloko eta Hizkuntzaren normalkuntza Arloko datu-baseak.

2. HE gaituta daukatentzat, trebakuntza saioak antolatu eta ,batez ere, idazmena lantzeko ikastaroak.

3. GALDESORTA ETA EMAITZAK

3.1. Galdesortaren edukiak eta nola egin diren.

Langileen motibazioa ezagutzeko, galdesorta prestatu eta banatu egin dugu Gernikako Ertzainetxeko langileen artean (4.2. eranskina). Hiritar segurtasuneko agente eta agente lehen lanpostuetan eta ikerketako agente eta agente lehenaren lanpostuetan lanean ari diren Gernikako ertzainetxeko langileen euskararen erabilera normalizatzeko plana diseinatu ahal izateko datu osagarriak biltzea da banatutako galdesorta honen helburua.

Galdesortak, hizkuntza gaitasuna, harreman-sarea eta euskararen erabilerari buruzko informazioa jasotzeaz gain planaren lehentasunei eta planarekiko ertzainen jarrerari buruzko iritzia jaso du.

Galdesorta, gazteleraz eta euskaraz dago eta banaka erantzutetokoa da. Lehenengo eta behin, erantzuleek beraien burua aurkeztu eta egindako ikasketen berri eman eta beraien euskararen gaitasun maila zein den esango digute. Ondoren harreman sarea eta erabilerari buruzko galderak erantzungo dituzte eta azkenik Gernikako ertzainetxean euskara zerbitzu hizkuntza bihurtzarren bideragarritasun-ikerketarekiko jarrerari buruzko galderak izan dituzte.

Galdera hauekin langileen iritzia, gaitasuna eta motibazioa ondo ezagutzea lortu nahi dugu.

Galdesorta banatu baino lehen lantalde bakoitzeko arduradunekin bildu eta beraien planaren helburua eta galdesortaren nondik-norakoak azaldu genizkien. Gero,

lantaldeko arduradunek galdesorta banatu zuten ertzainen artean eta, epea igaro eta gero, gu joan ginen galdesortaren bila.

3.2. Emaitzak.


Jarraian, galdesortaren emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu:

Gernikako ertzainetxean, aztertu ditugun lau lanpostuetan, 132 ertzain ari dira lanean, eta hauetatik 32k erantzun dute galdesorta (%24). Erantzun duten ertzainak aztertutako lau lanpostuetan banatzen dira. Beste alde batetik, galdesorta uztailan banatu zela eta 15 egun izan zituztela osatzeko kontuan hartu behar dugu. Beraz, galdesorta banatu zenean langile asko oporretan zeuden.

Halan eta guztiz ere, galdesortaren emaitzak baliagarriak direlakoan gaude, hartutako lagina aztertu nahi dugun unibertsoaren adierazgarri ona delako eta atera diren ondorio asko eta asko ditugun datu objetiboekin bat datozelako.

IKASKETAK

IKASKETAK			EUSKARAZ		GAZTELANIERAZ		ELEBIDUN	
OHO/LH1	14	43.75%	0	0.00%	14	100.00%	0	0.00%
BBB/LH2	7	21.88%	1	14.29%	6	85.71%	0	0.00%
UBI	8	25.00%	0	0.00%	7	87.50%	1	12.5%
ERDI	1	3.13%	0	0.00%	1	100.00%	0	0.00%
GOI MAILA	2	6.25%	0	0.00%	2	100.00%	0	0.00%
GUZTIRA	32	100.00%	1	3.13%	30	93.75%	1	3.13%



Erantzun dutenen artean, ia guztiek, gaztelanieraz egin dituzte ikasketak, eta Ertzaintzan, orokorrean, gertatzen den bezala, Gernikako ertzainetxe honetan ere langile gehienek OHO/LH1eko ikasketak burutu dituzte.

EUSKARA IKASTEN

2 ertzain

E-6

6.25%


Oso gutxi dira une honetan euskara ikasten ari direnak. Honen arrazoi nagusiak hiru dira:

1. Derigortasun data asko egon arren, denak akreditatuta daude, beraz une honetan ez dago arrazoi horregatik inor euskara ikasten.
2. Euskaldun zahar asko daude, eta beraiantzat, daukaten euskara maila nahikoa da beraien eguneroko lan harremanetarako.
3. Txandaka lan egiten dute, eta daukaten ordutegia ez da ona euskaltegietara joateko.

Bistan da, gure hipotesiaren baldintzak eta helburuak bete ahal izateko euskalduntze eta, batez ere, trebatze ikastaroak antolatu behar ditugula.

AMA HIZKUNTZA

AMA HIZKUNTZA		
Euskara	18	56.25%
Gaztelaniera	12	37.50%
Biak	2	6.25%
GUZTIRA	32	100.00%




Adierazgarria da, erantzun dutenen artean % 56,2k ama hizkuntza euskara izatea.

Lehenago lelotik jarraituz, euskaldun zahar asko daudela ikusi dugu, beraz, euskalduntze bidetik baino trebatzearen bidetik jo beharko dugu.

EUSKARAREN EZAGUERA

	Ezer ez		Hitz batzuk		Zertxobait		Nahikoa ongi		Ongi		Erantzunik ez	
	Kopurua	Porzenta	Kopurua	Porzenta	Kopurua	Porzenta	Kopurua	Porzenta	Kopurua	Porzenta	Kopurua	Porzenta
Ulertu	2	6.25%	2	6.25%	4	12.5%	10	31.25%	13	40.63%	1	3.13%
Hitz egin	3	9.38%	1	3.13%	5	15.63%	11	34.38%	11	34.38%	1	3.13%
Irakurri	2	6.25%	2	6.25%	16	50.00%	7	21.88%	5	15.63%	0	0.00%
Idatzi	4	12.5%	4	12.5%	15	46.88%	7	21.88%	2	6.25%	0	0.00%




Datu hauek aztertuta zera esan dezakegu:

- ❖ Euskaraz entzuteko eta mintzatzeko aitortzen duten gaitasuna askoz ere hobea dela irakurtzeko eta idazteko dutenarekin alderatuz gero.
- ❖ Bestalde, arazo gehien euskaraz idazterakoan dutela argi geratzen da.
- ❖ Aurreko datuek trebatze falta eta euskarazko eredu falta adieraz dezakete.

HITZ EGIN

HITZ EGIN	Euskaraz		Gaztelanieraz		Bietan berdin		Erantzunik ez	
Lanari buruz	0	0.00%	11	34.38%	15	46.88%	6	18.75%
Gai pertsonalei buruz	2	6.25%	6	18.75%	18	56.25%	6	18.75%




Mintzatzean zein gai mota erabiltzen duten euskaraz galdetzean ageri zaiguna da:

- ❖ Errazago aritzen direla euskaraz dakitenak gai pertsonalez jardutean, lan gaiez jardutean baino.
